## KULTUR ANIZTASUNA FESTARAKO AITZAKI

Kultur Aniztasunaren Egunaren harira, ekitaldi ugari antolatu ditu asteburu honetarako Ereite elkarteak › 2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza .info

Asteazkena 2009-05-20

VII.URTEA 1.706.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

# Eskualdeko enpresa gehienek bat egin dute biharko greba deialdiarekin

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** Gizarte eragile ugarik ere euren atxikimendua adierazi diote sindikatuen deiari

**MOBILIZAZIOAK** Tolosan manifestaziora deitu dute; Leitzan, auto karabana eta manifestazioa egingo dituzte 6




Ibarrako Greba Komiteak egin zuen agerraldiaren une bat. R. CALVO

## Zonaldeko pilotariak lehian HITZA Pilota txapelketan

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA** 114 pilotari ariko dira; seniorrak ez dira ariko, 22 urtez azpikoak bai 4

## Kulturen arteko elkarbizitza bultzatu, pinturaren bidetik

**TOLOSA** Turkiaren inguruko jardunaldien baitan, Pintura Lehiaketa antolatu du Sukru Karakusek 3

## Ekitaldiz beterik hasiera eman diote Leitzako XXXI. Kultur Asteari

**LEITZA** Herenegun hasi zen, Kultur Taldearen webgunea inauguratuz 7

## Euskal musika tresnak ezagutzeko aukera izan dute Musikariaren baitan

**TOLOSA** O+Hatz taldeko kideak Musika Eskolan izan ziren atzo ikasleekin 2



O+Hatz taldeko kideak, atzo, Musika Eskolan. E. EZEIZA

**Oharra:**

HITZA argitaratzen duen Tolosa Herria Hedabideak enpresako langileek bat egin dute hainbat sindikatuk eta gizarte eragilek biharko deitu duten greba orokorrarekin. Ondorioz, bihar ez da HITZArik izango. Ostiralean izango gara berriro ere zuekin.



Hiru billabonatarrek Afrikara egindako bidaia erakusten duen ikus-entzunezkoa ikusgai izango da etzi. HITZA

# «Hemengo kultur aniztasuna islatzen duten» ekitaldiak

**Tolosa »** Kultur Aniztasunaren Eguna dela eta, hainbat jarduera antolatu ditu Ereite elkarteak.

ERREDAKZIOA

Kultur aniztasunaren eguna da bihar, hori dela eta, hau ospatzeko asmoz, hainbat jarduera antolatu dituzte Ereite elkartekoek, *Mundujaia* izenpean.

Ekitaldi guztiak Plaza Berrian egingo dira, eta irekiak izango dira. Hau da, nahi duen orok hartu ahal izango du parte. Halaber, haima bat jarriko dute bertan, eta hara hurbildu beharko dira interesatuak.

Egitasmo honekin, Ereite elkartekoek, «hemen dauden beste kultura batzuk ezagutzera eman nahi dituzte, eta kultur aniztasuna modu parte-hartzailean sustatu». Hori dela eta, bi egunetako ekitaldiek Afrika dute ardatz. Hilaren 22an, Afrika beltza izango da protagonista, eta hilaren 24an, kultura arabiarra. Bestalde, jardunaldi hauetan euskal kulturarekin lotutako zenbait ekintza antolatzea ere beharrezkotzat jo dute Ereitekoek «hemen ere bai baitago aniztasun hori» diote. Hori dela eta, euskal musika tresnen inguruko saio bat ere izango da larunbat arratsaldean.

Hala ere, lehendabiziko ekitaldia etzi arratsaldean izango da. 19:00etatik aurrera, Plaza Berrian, Onditz Jauregi eta Luisa Montecelo billabonatarren esperientzia ezagutu ahal izango da ikus-entzunezko baten bitartez. Bi gazteak Afrikan barrena izan ziren zortzi hilabetez eta bertan ezagututako guztia *Ama-Afrika* lanean bildu zuten.

### » KULTUR ANIZTASUNAREN JARDUNALDIAK

**Maiatzak 22, etzi**

- **19:00etan.** 'Ama Afrika' izeneko proiekzioa ikusteko aukera.
- **20:30ean.** Jum Jum, Senegaleko musika.
- **22:00etan.** Kataia, Senegaleko musika.

**Maiatzak 23, larunbata**

- **11:00etaik 14:00etara.** Haurrentzako tailerrak. Te dastaketa, pintxoak, artisau salmenta...
- **Arratsaldean.** Graffiti erakustaldia, GKo Galeriakoen eskutik.
- **17:00etan.** Euskal musika tresnak. O+Hatz-eko kide diren Iñaki Plaza eta Jon Garmendia izango dira bertan.
- **18:00etan.** Filipinetako dantzak, Pagkakaisa taldearen eskutik.
- **19:00etan.** Afro-Arabiar perkusio tailerra, Mustapharen eskutik.
- **20:30.** Dantza latino tailerra, Ereite elkarteko kideen eskutik.

**Maiatzak 24, igandea**

- **17:00etatik 20:00etara.** Kultura arabiarreko tailerrak.



Zegaman jaioa, urte asko daramatza Tolosan bizitzen Ormazbalek. J. SAIZAR

# Ormazabalen azken lana, 'Hitz eta zaunka'

**Tolosa »** Haurrei zuzenduta liburu berri bat argitaratu du Joxan Ormazabal idazleak, Elkar argitaletxearekin.

ERREDAKZIOA

Joxan Ormazabalek lan berri bat argitaratu du. Elkar argitaletxearekin kaleratutako lanak *Hitz eta zaunka* du izena, eta haurrei zuzenduta dago. Batela saileko argitalpenean, Jose Belmontek lagundu dio Ormazabali, marrazkiak eginaz.

32 orrialde ditu liburuak, eta 6,30 euro balio ditu. Honela dio liburuaren argumentuak: Bazen ehiztari bat oso tirolaria, tiro eta tiro ibiltzen zena. Txakur bat ere bazen oso zaunkaria, uau eta uau isiltzen ez zena. Halako batean, txakur zaunkariak letagin zorrotzeko basurde handi-handi batekin topo egin zuen aurrez aurre. Eta susto haren ondorioz, gauza harrigarriak gertatu ziren handik aurrera.

Joxan Ormazabal Zegaman jaio zen 1948an. Irakasle izan zen urte batzuetan, 1981etik aurrera Elkarlanean argitaletxean hasi arte. Bertan haur eta gazte literatura du lanesparru: Euskal Herriko tradizioko lanak jasotzen ditu, atzerriko haur literatura itzuliz eta testu liburuak moldatuz batera. Haurrentzako ehun ipuindik gora itzuli ditu, Teo pertsonaitzat daukaten 30 liburu tartean.

Bere lan propioak idazten berandu hasi bazen ere, oparoa du literatur-ekoizpena, irudimentsua eta bizia, liburu bereziz osatua, adibidez, *Antonio Bolas* edo *Ilunorduak eta argilaurdenak*, haurrentzako poesia bikainez osatua.




'Hitz eta zaunka' liburua. HITZA



## Mahai inguruan ospatu dute San Isidro

**GAZTELU ●** Pasa den ostiralean San Isidro Eguna ospatu zuten Gaztelun. Udaletxeak antolatuta kirol jarduera ezberdinak egin zituzten lehendabizi. Ondoren, ekitaldiekin jarraituz, afaria ere izan zen herriko jatetxean. Hau, udaletxeak ordaindu zuen. Bertan parte hartu zutenen esanetan, «oso giro ona egon zen». Bestalde, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete parte-hartzaile guztiei. HITZA



## Euskal instrumentuak ezagutzeko bide

**TOLOSA ●** O+Hatz taldeko kideak Udal Musika Eskolan izan ziren atzo hainbat euskal instrumentu ezagutzera emateko asmoz. Hasteko, musika-tresnak aurkeztu zizkieten ikasleei, eta hauen inguruko azalpenak eman. Tartean, txalaparta, txistua eta danbolina, txirula, trikitixa, panderoa eta alboka. 15. Musikariako ekitaldiekin jarraituz, Mikel Gaztelurrutia piano jotzailea eta Javier Lopez Jaso akordeoi jotzaileak izango dira Musika Eskolan, 19:00etan E.E.

# Kulturen arteko elkarbizitza helburu duen Pintura Lehiaketa martxan da

**Gizartea »** 7 eta 15 urte bitartekoei zuzendua dago; hilaren 25etik 29ra izango da parte hartzeko aukera; erakusketa ere izango da.

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den urtean bezala, aurten ere Turkiari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Sukru Karakus Tolosan bizi den margolari turkiarrak. Hainbat ekitaldi bilduko ditu ekainean burutuko den ekimen honek, eta tartean gaztetxoei zuzenduriko Pintura Lehiaketa izango da. *Beste kultura batzuetako pertsonen bizikide izan* da lehiaketaren gaia.

Bi helburu edo oinarri ditu lehiaketak: batetik, kulturen arteko elkarbizitza sustatzea, eta bestetik gazteen artean pinturarekiko zaletasuna bultzatzea. Sukru Karakusek azaltzen duen bezala, «gure historian hainbat arrazoik eragindako migrazio mugimenduak etengabe egon dira, eta bertakoak beste lurralde batzuetara joateko irten dire bezala, azkenaldian herrialde ugaritatik etorritako geroz eta jende gehiagorekin egiten dugu topo eskualdean. Horregatik, bizikidetza onuragarria eraikitzen saiatzen gara, eta hain justu ere, bizikidetza hori marraztea nahi dugu, kultur desberdintasunak, kolore anitzak eta abar, alegia». Bestetik, marrazkigintza gazteengana hurbiltzea ere oso beharrezkotzat jotzen du Karakusek; «Bi helburu edo balore hauei ez zaie gaur egun behar adina garrantziarik ematen, eta horregatik uste dut garrantzitsua dela gazteak gauza hauetaz konturatzea».



Sukru Karakusek iaz ere antolatu zituen Turkiari buruzko jardunaldiak. I.T.

**Lanak jendaurrean**

7 eta 15 urte bitarteko gazteek izango dute Pintura Lehiaketan parte hartzeko aukera, eta bakoitzak lan bat aurkeztu ahalko du. Lanak, egilearen datuekin, hilaren 25etik 29ra aurkeztu beharko dira, Tolosako Kultur Etxean, edota Pintura tailerrean (Zabalarreta parkean).

Tolosako Udaleko teknikari batek, Tolosako bi artista ezagunek, SOS Arrazakeriako kide batek eta material denda bateko pertsona batek osaturiko epaimahaiak hiru mailatan banatuta lanak aukeratuko ditu sarituak izan daitezen. Sari banaketa ekainaren 8an egingo da, eta hain zuzen ere, egun horretan zabaduko dute Aranburu jauregian lan guztiekin jarriko duten erakusketa.

**» HAINBAT DATU**

- **Ekimena.** Pintura Lehiaketa.
- **Nori zuzendua.** 7 eta 15 urte bitarteko neska-mutilei.
- **Gaia.** *Beste kultura batzuetako pertsonen bizikide izan.*
- **Lanen aurkezpena.** Maiatzaren 25etik 29ra, Tolosako Kultur Etxean edota Pintura tailerrean (Zabalarreta, 5), 11:00-13:00 eta 17:00-19:00. Edozein teknika erabili ahalko da (argizaria, akuarela, akrilikoa...) papera edo kartoia erabilita. Gutxienez, 20x30 eta gehienz 30x40.
- **Sariak.** 7-9 urte, 80 euro; 10-12 urte, 100 euro; 13-15 urte, 120 euro. 50 eta 30 euroko erosketa txartelak ere banatuko dira maila guztietan.
- **Oinarriak.** *tolosakoudala.net.*

## Borroka armatua hasi zen eguna gogoratuz

**TOLOSA** ● Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolaturiko Maiatza Borrokan ekimenaren baitan, Sahararen iragan kulturalaren bilaketa zientifikoaz aritu ziren, Andoni Saenz de Buruaga EHUko irakaslearekin, Kultur Etxean. Bestalde, gaur, borroka armatuaren hasieraren 36. urteurrena izaki, *Maroko Saharatik at, autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Saharararentzat* lelopean elkarretaratatzea egingo dute, Plaza Zaharrean, 20:00etan. Herritar guztiak animatzen dituzte parte hartzera. I.T.



## Laburrak

### Aralarrek hitzaldia emango du gaur, Kultur Etxean

**TOLOSA** ● Aralarrek hitzaldia emango du gaur, 19:00etan Kultur Etxean. Jon Abril alderdiko koordinatzaileordeak eta Oxel Erostarbe legebiltzarkideak emango dute, *Ezker abertzale politikoa. Etorkizuneko apustua* izenburupean. «Etorkizunari begira ezker abertzale politikoak izango dituen erronkak» landuko dituzte.

### Orfeoiaren kontzertua ikusgai, 28 Kanalean

**TOLOSA** ● Tolosako Orfeotik jakinarazi dutenez, pasa den martxoaren 20an San Frantzisko elizan eskaini zuten kontzertua gaur, 22:00etan izango da ikusgai 28 Kanalean.

### Zine bonuak eskuratzeko aukera asteburuan

**TOLOSA** ● Maiatza eta ekaineko zine bonuak ostiralean, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, eta asteburuan zine saioen ordutegian eskuratu ahalko dira. Hilaren 28a izango da erostekо azken eguna.

### Festa Batzordearen bilera, gaur, 20:00etan

**IBARRA** ● Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaien antolaketarekin jarraitzeko, gaur, 20:00etan, bilerara deitu du Festa Batzordea. Pleno aretoan izango da eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

### Tolosaldeko Eskolako Agenda 21 Topaketa, gaur

**TOLOSA** ● Tolosaldeko Eskolako Agenda 21eko lehen Topaketa egngo dute gaur. Zerkausian izango da ekitaldia, 09:00etatik 12:30era bitarte.

### Zaborra bilketarik ez dute egingo bihar

**TOLOSA** ● Tolosaldeko Mankomunitateak, jakinarazi du, biharko greba dela eta, egun horretan, ez dela zabor bilketa zerbitzurik egongo. Zerbitzua asteazken gauean etengo da eta ostegun gauean berrabiatuko da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta **Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

**HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Abian den VI. Hitza Pilota Txapelketa «zonaldekoagoa izango da»

**Pilota »** 114 pilotari ariko dira sei mailatan banatuta; aurten seniorrena beharrean 22 urte azpikoena izango da.

**NEREA URBIZU**

VI. Hitza Txapelketa abian da. Aurten pilota partidak Albizturren, Tolosan, Bidegoianen, Adunan eta Berastegin jokatuko dituzte, bakoitzean maila batekoak.

Luis Galarraga antolatzaileak, urteek emandako esperientziarekin erabaki bat hartu du: «Seniorren mailan pilotariak zehaztea oso zaila izaten da, txapelketa pribatu eta ez pribatu askotan dabiltzalako garai berean. Horregatik, aurten senior mailakoen partidarik ez egitea erabaki dugu». Beste berritasunetariko bat pilotarien jatorria da, hau da, aurtengo Hitza Txapelketa «zonaldeko txapelketa» izango da. Esaterako, eskolarteko maileko pilotariak ingurukoak dira: «Lazkaotik hasita Andoainera bitartekoak ariko dira».



Finala ekainaren 27an izango da, Tolosako Beotibarren. Irudian, Ezkurdia-Zubiria jubenilak, iazko txapeldunak. A. IMAZ

### Kadeteak banaka, gainontzekoak binaka

Jubenilen eta 22 urte azpikoen artean, nafarrak eta bizkaitarrak ere ariko dira baina aurrerago zehaztuko dituzte jokalariak. Hasiera batean, maila nagusietako finalak behintzat Tolosako Beotibarren jokatuko dituzte ekainaren 27an.

Beraz, joan den urtean bezala sei mailatan ariko dira pilotariak, baina iazko seniorren aldean, 22 urte azpikoak izango dira. Guztira 114 pilotari ariko dira txapelketan.

Urtero bezala, kadeteen mailan pilotariek banaka jokatuko dute eta lau t'erdikoan (Bidanian). Beste maila guztietan binaka ariko dira. Aurten jokalari gutxiago ariko direnez «22 urte azpikoak eta jubenilak beranduago hasiko dira jokatzen, eta final-laurdenak, finalerdiak eta finala jokatuko dute».

### Asteburuko emaitzak

Txapelketa asteburuan hasi zen eta hiru maila txikienen txanda izan zen. Haietan emandako emaitzak hauek izan ziren: benjaminetan, Galarraga-Plazaola 9, Murua-Zubeldia 16; Zubeldia-Zubeldia 13, Gelbentzu-Zubizarreta 16; Agirre-Ugartemendia 16, Tormo-Ugartemendia 9. Alebinen artean, Santxez-Aldalur 16, Mozo-Murua 4; Matxin-Irauntzetamurgil 7, Senperena-Aburuza 16; bukatzeko, Iraola-Irazusta 16, Altuna-Irazustabarrena 15.

Infantiletan Aldalur-Imaz 6, Furundarena-Ibarguren 18; Urdanpilleta-Aburuza 15, Arandia-Ormazabal 18 eta Arregi-Garaikoetxea 9, Ormazabal-Labaka 18.

### Gaurko kadeteen partidak

Gaur, Bidanian kadeteen banakakoak izango dira. Guztira lau partida jokatuko dituzte. Bertan ariko direnak honakoak dira: Paredes eta Murua, Balerdi eta Jauregi, Arregi eta Lopez eta Barandiaran eta Aburuza. Lehenengo partida 19:00etan hasiko da.

### » ORDUAK ETA EGUNAK

- **Benjaminak.** Berastegin larunbatero, 16:00etan.
- **Alebinak.** Albizturren ostiralero 19:30ean.
- **Infantilak.** Adunan ostiralero 19:30ean .
- **Kadeteak.** Bidanian asteartetan eta asteazkenetan ekainaren 2a arte. Hortik aurrera, asteartero bakarrik. 19:00etan izango dira.
- **Jubenilak.** Tolosako Beotibarren larunbatetan.
- **22 urte azpikoak.** Tolosako Beotibarren larunbatetan.

KEY·LAN
Sarrailgintza
Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

Langileok eredu ekonomiko eta sozial justuaren alde borrokan
CONTRA EL CHANTAJE PATRONAL
Bihar
Greba orokorra
GOIZEKO 12:00etan MANIFESTAZIOAK
Bilbo: Moyua Plazatik
Donostia: Artzain Onetik
Gasteiz: Bilbo Plazatik
Iruñea: Gaztelu Plazatik
ARRATSALDEAN MANIFESTAZIOAK ESKUALDE GUZTIETAN
ELA
LAB
ESK
STEE-EILAS
EHNE
HIRU

# Zuhaitz eguna egingo dute gaur Albizturren

**ERREDAKZIOA**

Albizturko Kultur Astearen egitarauarekin hasteko, eskolako haurrek gaur landatuko dituzte zuhaixkak. Izan ere, joan den ostiralean egin behar zuten, baina eguraldi txarra zela eta, bertan behera geratu zen ekitaldia. Esan bezala, gaur egingo dute, 14:30ean hasita. Erdiguneko auzo berriko berdeguneetan landatuko dituzte, eta ondoren, udaletxeko balkoia apainduko dute, lore koloretsuak jarriz. Jarraian Guraso elkarteak prestatutako merienda izango dute parte hartzen dutenek.

Etzi, egitarauak zioen moduan, 19:00etan eskolako haurrek ikasturtean zehar prestatzen aritu diren antzerkia aurkeztuko dute udaletxeko areto nagusian. *Txiukue* du izena antzezlanak.

# Algeciraseko euskal presoek greba utzi dute

**ERREDAKZIOA**

Algeciraseko espetxeko 16 euskal presoek garbitasun greba utzi dute. Preso hauen artean Mikel Egibar zizurkildarra dago.

Hasieran gose greba egiten hasi ziren, baina segituan ekin zioten garbitasun grebari, apirila bukaeran. AAMk esan duenez, «jasaten duten isolamendua eta tratu txarrak salatzeko» hasi zuten greba. «Egoerak larria izaten jarraitzen du baina mementoz aurrera begira zer egin berrikusi eta erabakiko dute Algeciraseko espetxeko euskal presoek». Presoen eskaerak hauek dira: jipoiekin amaitzea, espetxe araudia betetzea, bizi baldintza duinak bermatzea eta isolamenduekin amaitzea.

## L Laburrak

### Alkartasuna biltokiak bi deialdi zabaldu ditu

**ANOETA** ● Anoetako Alkartasuna biltokian gaur podologoaren bisita izango dute. 14:45etik aurrera izango da aukera. Bestalde, datorren astelehenean Carlos Soberaren telebista saioara ikusle bezala joateko gonbitea jaso dute. 10:00etan aterako dira Anoetako plazatik eta hamaiketakoa eta bazkaria emango diete. 15-20 lagun ingururentzat izango da lekua. Bertara joateko izena eman behar da aurretik, Biltokian bertan, 18:00etatik 20:00etara.

### Ekainaren 7ko festarako bazkarirako txartelak

**ALEGIA** ● Alegiako kultur batzordea *Garai bateko Alegia* festa prestatzen ari da ekainaren 7rako. Egun horretan egingo duten bazkarirako txartelak salgai daude hilabete osoan zehar. Hauek lortzeko lekuak honakoak dira: Kurpil, Iskiña, Etxeberria, Jubilatuak, Kafe Letamendia eta Eizmendi taberna eta Kultur Etxea, 10 euroan. Egun horretan festa izango da Alegian, garai batean bizi ziren modua zein zen ezagutzeko aukera izango baita besteak beste.



## 50 haur inguru XI. Biatloian

**ZIZURKIL** ● Maiatza Saltsan egitarauaren baitan, igandean XI. Biatloia egin zuten Zizurkil Goian eta bertan 50 haur inguruk parte hartu zuten. Bakoitzari kamiseta bat oparitu zioten eta probaren ondoren hamaiketako izan zen. Gurasoek diotenez, «oso giro onean» egin zen biatloia. HITZA



## Belaunaldi guztiak bat eginik

**ANOETA** ● Herriari bizia eman dio hamar urtez Gaztetxeak. Bertatik igaro diren belaunaldi guztiek bat egin zuten asteburuan eta Belaunaldien Eguna antolatu zuten, 10. urteurreneko ekitaldien harira. Guztiek bazkaria egin zuten eta elkarreki igaro zuten eguna, giro ederrean. HITZA




## Zelai enpresaren zilarrezko ezteiak

**ANOETA** ● Harri-jasotzaile, aizkolari, TAKeko arraunlari, trikitilari, bezero eta lagunen artean ospatu zuen, pasa den maiatzaren 9an, azken urteetan Anoetan finkatua eta obra eta eraikuntzarako makinarian espezializatua dagoen Zelai enpresak, bere 25. urteurrena. Makina erakustaldi txiki bat ere egin zuten merkatuan sartu diren zenbait berrikuntza erakusteko. Egunari sagardotegian eman zioten amaiera jai giro ederrean. Zelaik eskerrak eman nahi izan dizkie bere ibilbidean bezero eta lagun izan dituenei. HITZA






# Enpresa gehienek egin dute bat biharko grebarekin

**Greba Orokorra »** Eragile sozialek ere euren atxikimendua agertu dute; «krisia gure eskubideak murrizteko baliatzen» ari direla salatu nahi dute.







Ibarrako zein Adunako Greba Komiteek kalera ateratzeko deia luzatu dute. R. CALVO-HITZA

REBEKA CALVO

LAB eta ELA sindikatuek agertutakoaren arabera, Tolosaldeko zein Leitzaldeko enpresa ia guztiek egin dute bat biharko aipatu sindikatuek deitutako Greba Orokorrarekin.

Tolosaldeko 90 bat enpresetatik ia guztiek egin dute bat deialdiarekin eta Leitzaldean ere asko dira bihar lanera joango ez direnak. Leitzan, zehazki, enpresa guztiak geratuko dira eta Erleta eskolan ere irakasle gehienak grebaren alde atera dira, nahiz eta eskola irekita egongo den. Amazabal Institutuan gaur arratsaldean erabakiko dute irakasleek zer egin.

Greba Orokor deialdia egin duten sindikatuek esandakoaren arabera, hiriburuetan egingo dituzte goizean manifestaldiak, eta horietan ESK, EHNE, STEE-EILAS eta Hiru sindikatuek era bat egin dute. Era berean, nazioarteko 30 sindikatu baino gehiagoren babesa ere jaso dute, tartean, Munduko Sindikatuen Konfederazioarena (FSM), 80 herrialdetako 170 milioi langile baino gehiago ordezkatzen dituena.

AHT Gelditu! Elkarlanak ere egin du bat Greba Orokor deialdiarekin. Taldeak agertutakoaren arabera, «badira arrazoi nahikoa behar den bezalako erantzun bat emateko». «AHTren aurkakotasunetik behin eta berriz aldarrikatu dugu egungo gizarte eta ekonomia eredua sakonki eraldatu beharra dagoela. Denon diru publikoa esku pribatuetara bideratzearen salaketa egiteko egun aproposa» dela biharkoa aldarrikatu dute.

### Greba Komiteak

Era berean, arratsaldez herri desberdinetan ere izango dira manifestazioak eta hauetan gizarte-eragilek era hartuko due parte. Ildo honetatik, Greba Komiteak osatu dituzte hainbat herritan gizarte-eragilek deialdiarekin bat egiteko.

Ibarran, esate baterako, sortu dute Greba Komitea eta ekitaldi desberdinak egin dituzte, gainera, greba deialdiaren harira. Astelehenean prentsaurrekoa eskaini zuten eta ondoren, hitzaldi-eztabaida ere izan zuten Subegi elkartean; lehenik eta behin Autoeskola Antikapitalistako kide batek kapitalismoaren sorreratik gaur egunerainoko bilakaera azaldu zuen, ondoren, LABeko kide batek Euskal Herriko eta eskualdeko datu ekonomikoak eskaini zituen, eta bukatzeko ezker abertzaleko kide batek aurrera begirako ildo sozioekonomikoa azalduko zuen.

Ibarrako Greba Komiteak esan zuenez, «langileok arrazoiak ditugu soberan patronalaren eta administrazioen txantaje eta jokabide zikinei erantzuteko eta krisialdi hau pagatzeko prest ez gaudela esateko». Era berean, «sistema kapitalistaren krisi hau gure eskubide sozial eta laboralak gehiago murrizteko baliatzen» ari direla salatu zuten eta baita «dirua egon badagoela», baina «langileok sortzen dugun aberastasunak beti amaitzen du gutxi batzuen eskuetan». Horiek horrela, biharko Greba Orokor deialdia «aldaketa estrukturalaren alde» egiteko eta «gehiengo sozialaren mesedetan eraikiko dugun bestelako eredu baterantz joateko» babesten dutela gaineratu zuten.

Adunan ere Greba Komitea eratu dute eta, besteak beste, herriko Muxkil elkartearen, Txulobi Elkartearen, Adunako hautetsien eta hautetsi ohi batzuen atxikimendua jaso dute jada. Zenbait herritarren babesa ere jaso dute eta bihar 18:30ean Tolosako Triangulotik abiatuko den manifestazioarekin bat egiten dutela ere agertu dute.

### Gizarte-eragileak arratsaldeko deialdiarekin bat

Ibarrako eta Adunako Greba Komiteak ez dira, hala ere, bihar arratsaldeko manifestazio deialdiarekin bat egiten duten bakarrak. Izan ere, Tolosaldean gizarte-eragileek ere egin dute bat deialdiarekin.

Zehazki hauek dira orain arte bat egin duten eragileak: ezker abertzalea, Bilgune Feminista, Autoeskola Antikapitalista, Jatorkin, Euskal Herria Sozialista, Ikasle Abertzaleak, Tolosaldeko Gazte Asanbladak, Zahartzaro Duinaren Aldeko Plataformak, Euskal Herrian Euskarazek eta ESAITek.

Aipatu gizarte-sozial guztiek grebarekin bat egiten badute «kapitalismoaren alternatiba hori gizarteak hobetzeko helburuan lan egiten dugun gizarte-mugimendu guztien artean, bakoitzak bere esparruan, bilatu behar» dutelako da.

Bilgune Feministak, bere aldetik, krisiari komunikabideek eta, oro har, iritzi publikoan «gizonezko aurpegia» jarri dietela salatu du. «Emakumeok beti egin izan dugu lan, bai etxean baita etxetik kanpo ere. Emakumeon ekarpena, bai etxeko ekonomiari, bai herrien ekonomiari, errealitate bat izan da, baina ez da inola ere bere neurrian baloratu eta egun ere ez da baloratzen», gaineratu du Bilgune Feministak.

## » DEIALDIAK

### Tolosaldea

- **09:00etan.** ELAk eta LABek deituta Tolosako Triangulon elkartuko dira langileak eta 10:00ak aldera aterako dira Donostiaruntz.
- **12:00etan**. ELA, LAB, ESK, EHNE, STEE-EILAS eta Hiru sindikatuek deitutako manifestazioa Donostian izango da, Artzain Onetik. Eskualdekoak Anoeta estadiotik aterako dira 11:30ean.
- **18:30ean.** Triangulotik abiatuta manifestazioa egingo dute sindikatuek eta gizarte eragileek.

### Leitzaldea

- **09:00etan**. ELA eta LAB sindikatuek deituta kotxe karabana egingo dute Leitzako eskolatik abiatuta.
- **12:00etan**. ELA, LAB, ESK, EHNE, STEE-EILAS eta Hiru sindikatuek deitutako manifestazioa izango da Iruñean Gaztelu Plazatik abiatuta.
- **18:00etan.** Manifestazioa egingo dute sindikatuek eta herriko gizarte-eragileek Leitzako San Migel plazatik abiatuta.



Leitzako Mugak ezagutzeko lehen mendi irteera ekainaren azken asteburuan egin zuten. HITZA

# Gazte Eune eta herriko mugak ezagutzeko bigarren aukera XXXI. Kultur Astean

**Leitza** » Leitzako Mugak ezagutu nahi dituenak gaur eman beharko du izena. Gazte bazkariko txartelak berriz Torrean daude.

ASIER IMAZ

Leitzako Kultur Taldearen webgunea, *www.leitzakultura.net*, aurkeztuz hasi zen herenegun XXXI. Kultur Astea. Ondoren Ade Sotilek hitzaldia eskaini zuen *Guatemalako bizipenak Gobernuz Kanpoko Erakunde batetik* goiburupean. Bigarren egunean, atzo, eskularien eskuetako gaitzak aztertu zituzten zinean, Ander Letamendiarekin.

Atsedenik hartu gabe, gaurkoan Ane Albisuk eskainiko du hitzaldia Aurreran 20:00etan. *Atondu* liburuaren aurkezpena egiteaz gain, Elkartean *Euskal Jantzien Atontze tailerrak* ere antolatu dituzte.

**Mugarrien Itzulia larunbatean**
Kultur Astearen baitan Mendibil Mendi Taldeak Mugarrien Itzulia antolatu du hilaren 23an. Mendi irteeran parte hartu nahi duenak gaur eman beharko du izena, horretarako gaurkoa azken eguna izaki. Antolatzaileek zerrendak Astiz eta Maimur liburudendetan jarri dituzte, baita *mendibilaurrera@hotmail.com* helbide elektronikoan ere.

Leitzaren mugak ezagutzera 07:00etan irtengo dira autobusez Oialde paretik. Ibilaldiaren ondoren nahi duenak Musun-Zarren bazkaltzeko aukera izango du.

**Gazte Eune larunbatean**
Leitzako Gazte Asanbladak ere bat egin du Kultur Astearekin Gazte Eune antolatuz. Hilaren 23an zehar hainbat ekitaldi antolatu dituzte Gaztetxeko kideek.

BF taldeak 12:00etan *Eta Karmele?* antzezlana eskainiko du. 14:30ean bazkaria egingo dute Gaztetxean, txartelak Torren aurkitzen dira 10 euroren truke. Ondoren kantaldia egingo dute. 21:00etan Luntxa egongo da Gaztetxean, 22:30eko kontzertuen aurretik.

» **EGITARAUA**

**Maiatzak 20, gaur**
▪ **20:00etan.** Aurreran hitzaldia: *Atondu* liburuaren aurkezpena eta Euskal Jantzien Atontze tailerra Ane Albisuren eskutik.

**Maiatzak 22, etzi**
▪ **15:00etatik 16:30era.** Eskolan Dindaiaren *Xamariko jolasak*.
▪ **18:00etan.** Zinean antzerkia: *Xamarikoren kutxa magikoa*.
▪ **20:00etan.** Aurreran hitzaldia Edorta Agirre sukaldariaren eta Asisko Urmeneta margolariaren eskutik: *Jaki(te)az*.
▪ **23:00etan.** Peritzan rock kontzertua: Hoey & The Mussels taldea.

**Maiatzak 23, larunbata**
▪ **07:00etan.** Mugarrien Itzulia. Autobusa Oialdetik irtengo da.
▪ **11:00etatik 13:00etara.** Igerilekuan graffiti tailerra 12-15 urte bitartekoei zuzendua: *Emaiozu igerilekuari sensualitate punttu bat I*.
▪ **12:00etan.** Gaztetxean antzerkia: *Eta Karmele*.
▪ **14:30ean.** Gaztetxean bazkari herrikoia. Ondoren argazki emanaldia eta hitzaldia: *Hegoameriketara bidaia*.
▪ **19:00etan.** Kalejira FTF Street Band taldearekin.
▪ **21:00etan.** Gaztetxean luntxa.
▪ **23:00etan.** Gaztetxean kontzertua.

**Maiatzak 24, igandea**
▪ **10:00etatik 14:00etara.** Gorrittenean Peru-harrira bisita librea. 12:30ean aurkezpena.
▪ **18:30ean.** Elizan organo kontzertua Raul del Tororen ikasleen eskutik.
▪ **19:30ean.** Zinean dantza kontenporaneo emanaldia: Locus Desertus.

**Maiatzak 25, astelehena**
▪ **20:00etan.** Aurreran Leitzako ahozko ondarearen aurkezpena.

**Maiatzak 26, asteartea**
▪ **19:00etan.** Liburutegian hitzaldi-ikastaro laburra Javier Fernandezen eskutik: *Ordenagailu bat erosi duzula?*

**Maiatzak 27, asteazkena**
▪ **19:00etan.** Aurreran Ima Zestauren hitzaldia: *Haurren adopzioa*. Ondoren, jolasaldi irekia.

**Maiatzak 28, osteguna**
▪ **20:00etan.** Aurreran Floren Aoizen hitzaldia: *1.512. urteko Nafarroaren konkista*.

**Maiatzak 29, ostirala**
▪ **20:00etan.** Torrean Zirika ZIrkus taldeko Pantxika Lamurren antzerki emanaldia: *Nik egin beharko & ko*.
▪ **00:00etan.** Torrean Heavy kontzertua: Kantaflor zuzenean.

**Maiatzak 30, larunbata**
▪ **09:30ean.** Plazatik oinez abiatu eta eskalada saioa trenbidean, Kandeletxe paretsuan.
▪ **11:00etatik 13:00etara.** Igerilekuan graffiti tailerra 12-15 urte bitartekoei zuzendua: *Emaiozu igerilekuari sensualitate punttu bat II*.
▪ **19:00etan.** Zineman Fidel Mendiaren eta Ian Baquerinen ikuskizuna: *Mendiko Eskia Kaukason*.
▪ **20:30ean.** Plazan folk kontzertua: Keltiar Aldea zuzenean.

**Maiatzak 31, igandea**
▪ **11:00etatik 20:00etara.** Plazan XXXI. Artisau Azoka.
▪ **20:00etan.** Plazan dantzaldia Garraxi taldearekin.

## G Gutunak

**Eskerrik asko Ibarra**

Ibarrako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak eskerrak eman nahi dizkie herritar guztiei, presoen eskubideen alde erakutsitako konpromezuagatik. Guztira 700 lagunek sinatu dituzte erreibindikazioak.

Bestalde, sinadurak biltzen ibili ginenenganako adeitasuna eskertu nahi genuke, sinatu nahiz ez sinatu, guztiek errespetu handiz hartu gintuzten eta. Gure partetik jarrera berdina aurkitu izana espero dugu.

Sinadurak herriko udaletxean mozioak sartzeko ziren eta jadanik pasa gara bertako lehiatilatik.

Mozioaren testuak hain orokorrak izanik, Euskal Herriko udal bakoitzean bertako errealitatera egokituak izan dira herri bakoitzean. Ibarran, mozioaren puntuekin bat egin ezkero, presoen senideei bidaietarako diru laguntzak berrezartzea eskatzen dugu, orain dela urtebeterarte egiten zuten bezela hain zuzen ere.

Normalean, mozioa hilabeteko azkeneko asteartean eztabaidatuko litzateke, hau da, maiatzak 26ean goizeko 09:00etan. Eguna aldatuko balute, jakinaraziko genuke ahalik eta azkarren, izan ere, udaletxeko ordezkariak ixilka ibiltzen dira eta udalbatzak goizean-goiz eginez eta azken orduan publiko eginez herritarrak azaldu ez gaitezen.

Azkenik, herritarrak bertan partehartzera deitzen ditugu.
**Amnistiaren Aldeko Mugimendua.** Ibarra.



Maulera jende asko joango dela uste dute talde antolatzaileek. HITZA

# Ibarratik Xiberoara asteburu pasa hilaren 23an eta 24an

A. IMAZ

Haitzetan Raju Mendi Taldeak eta Bai Euskal Herriari ekimenak Xiberoara asteburu pasa antolatu dute asteburu honetan.

Izena emateko zerrenda Zubiaurre Tabernan aurkitzen da, horretaz gain, zalantza guztiak argitzeko eta informazio gehiago eskaintzeko 669 02 53 30 telefono zenbakia jarri dute.

**Larunbata eta igandea**
Ibarrako plazatik Maulera hilaren 23an, larunbatean, irtengo dira 08:00etan. Goizean joan ezin duenak arratsaldean ere aukera edukiko du, horretarako lehen aipatutako telefono zenbakira deitu beharko da edota antolatzaileekin hitz egin.

Itzulera eguna hilaren 24a izango da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

2009-05-20 **Eguraldia**

| Goiza | Arratsaldea | Tenperatura | Bihar |
| --- | --- | --- | --- |
| | | 21° / 10° | GOIZA: OSTARTEAK; ARRATS.: ESTALIA; BEROENA: 23°; HOTZENA: 10° |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldekohitza.info.
**Webgunea:** www.tolosaldekohitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldekohitza.info.
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo @tolosaldekohitza.info.
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea @tolosaldekohitza.info.
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea @tolosaldekohitza.info.
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea @tolosaldekohitza.info.
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea @tolosaldekohitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | **Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil | Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

# A Agenda

## Deialdiak

■ **Ibarra.** Mila Gallastegi eta Asier Aranzabalen *Iran Topikoen aurkako bidaia* ikus-entzunezkoa 19:30ean Benito Izagirre kultur etxean *Munduan zehar bidaiatuz* astearen barruan.

■ **Irura.** Udaletxeko batzardi aretoan, 19:00etan, herrian egingo diren ekintzak antolatzeko festa batzordeko bilera. Joan nahi duten guztientzat irekia.

■ **Tolosa.** Aralar alderdiko Jon Abril eta Oxel Erostarberen hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan: *Ezker abertzale politikoa. Etorkizuneko aukera.*

■ **Tolosa.** 7 eta 15 urte arteko gazteentzako pintura lehiaketa elkarbizitzaz. Lanak hilaren 25etik 29ra entregatu behar dira Kultur Etxean edo Sükrü Karaçusen estudioan (Zabalarreta 5). Oinarriak: *www.tolosakoudala.net.*

## Irteerak

■ **Ibarra.** Hilaren 23an Elizondora irteera: hamaiketakoa Hotel Baztanen, ondoren bisita Bertiz parkera edo denbora librea Elizondon, 14.00etan bazkaria Baztana hoteleko Garzain jatetxean, ondoren superbingo, dantzaldia eta Hondarribian geldiunea. Izen-ematea, elkartean bertan.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatu eta pentsiodunen elkarteak bidaia antolatu du Playa de Arora (Girona, Herrialde Katalanak). Ekainaren 1ean joango dira eta 15ean itzuli. Oporraldiaren prezioa bazkideentzat 391 euro da eta gainontzekoentzat 397 euro. Elkartean bertan eman daiteke.

## Kultur asteak

■ **Leitza.** 20:00etan Aurreran hitzaldia: *Atondu* liburuaren aurkezpena eta Euskal Jantzien Atontze tailerra Ane Albisuren eskutik.

## Musika

■ **Ibarra.** Urtzi Uriarte argazkilariaren *Te pito o te henua* erakusketa Benito Izagirre kultur etxean Pascua uharteaz.

■ **Tolosa.** Mikel Gaztelurrutia pianojolea eta Javier Lopez Jaso akordeoi jotzailearen jazz kontzertua Eduardo Mokoroa udal musika eskolako areto nagusian 19:00etan, 15. Musikaria astearen baitan.

■ **Tolosa.** Txileko Kiltrv kolektiboaren margolanak ikusgai GKo Galleryn.

## Kirola

■ **Baliarrain.** Baliarraingo II. Frontenis Txapelketa antolatu dute. Bertan parte hartzeko, gizonezkoek banaka eta emakumezkoek binaka, izena eman dezakete Aralar Kirolak-en (Tolosa). 5 euro balio du. Txapelketa ekaineko lehen bi asteburuetan jokatuko da.

## Hitzaldiak

■ **Altzo.** *Ongizate pertsonalerako gomendioa: autoestimua* hitzaldia udal batzar aretoan 18:30tik aurrera.

## Zinema

■ **Villabona.** *Pepper* haurrentzako filma Gurea aretoan 11:00etan.

## » GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur**

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 673649.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

**Bihar**

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

**HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.**

# A Agurrak



**Urte askoan!**
**Estanix (Getaria).**
Amarotzetik hiru muxu handi.



**Urte askoan!**
**Eider Tobar Larrauri (Ikaztegieta).** Bihar 4 urte, lehengusu eta familiaren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...
agurrak

agurrak

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.**

agurrak

TX sarrerak

HITZAK 3 harpidedunentzat **bina sarrera** ditu



**Txirri Mirri eta Txiribiton Junior**

Maiatzak 23 ◦ Larunbata ◦ 17:00etan
Tolosako Leidorren



harpidedunen TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu goizez: **943-65 56 95**




